

Artearen mugak Edozerk balio du... edo ia

Artea bere mugen bila dabil, edo akaso aspaldi ohartu da mugagabea dela. Garai batean derrigorrezkoak ziruditen edertasuna eta abilezia teknikoa alboan utzita, azken hamarkadetan mila bide jorratu dituzte artistek, askorentzat irensteko zailak diren obrak sortuz. Arte munduak ia aho batez dio, hala ere, artea dela artista batek proposatzen duen edozer. Bidaia horretan, onartezintzat ditugun eremuetan sartu dira batzuk, etikoki deitoragarriak diren ekintzak aurkeztuz. Artelanak, nolana.

UNAI BREA

ARTEAREN MUGAK bilatzen hasi behar badugu, komenigarria litzakete agian, ezer baino lehen, “zer da artea?” galderari erantzuten ahalegintzea. Lan gaitza da hori, baina. Profesionalak ez dira gauza definizio bakarra emateko, zer esanik ez hiztegiak. Ismael Manterola EHUKo Artearen Historia irakasleak adibide hau eman digu, berak eskoletan erabiltzen duena: “*Material baten transformazioa esanahi sinboliko batzuk lortzeko*. Gutxi gorabehera, buruz ari bainaiz. Baina alde handia dago hiztegi batetik bestera, eta edonola ere denak gelditzen dira motz, bai gaurko artelanei bai artearen historiak eman duenari begiratuta”.

Arte kontzeptua kulturarekin lotuta dagoen heinean, denboran aldakorra da, Manterolak nabarmentzen duenez. Eta eman dezake gaur egun inoiz baino kontzeptu zabalagoa dela, bere baitan ia edozer onartzeraino malgutu



dela, baina Manterola ez dator guztiz bat. Antzianako greziarrentzat, esaterako, guretzat baino askoz gauza gehiago har zitezkeen artetzat. “Haiek maila berean jartzen zituzten koadroa pintatzea, jende aurrean hitz egitea edo zapata pareta egitea”. Hala ere, nahikoa garai “eskuzabalean” gaudela esan daiteke. Iritzi desberdinak dauden arren, orobat zabaldu da 1960ko hamarkadan indar hartzen hasi zen ideia: arteak ez du zertan edertasunarekin lotuta egon.

Michel Mejuto galeria-jabearen ustez, arteak ez du mugarik ikuspuntu plastikotik, alegia, artelan batek hartzen duen formaren ikuspuntutik. “Picassok *Las señoritas de Avignon* pintatu eta mendebaldean indarrean zeuden erre-presentazioaren hitzarmenak hautsi zituenetik, XX. mende osoa artearen muga plastikoen esplorazio etengabea izan da”. Mugarri garrantzitsu bat, aditu askoren ustez, Marcel



Duchampen lana izan zen. “Muga urraketaren adibiderik garbiena, beharbada, Duchampek gernutoki bat erakusketa batean paratu eta hura artea zela aldarrikatu zueneko da”, dio Mejutok. “Artista batek arte modura aurkezten duen guztia artea da”, izan zen Duchampek zabaldutako mezua. Ideia horrekin bat dator Mejuto, eta baita arte munduan dabilen oro, kaletar arruntaren pertzepzioa, seguruenik, oso bestelakoa den arren. Baina, nor da artista? Zer behar da norbait artistatzat jotzeko? Norberak hala aldarrikatzea nahikoa da? Ez dira erantzuteko galdera errazak.

“Arte testuingurua”

Jon Mantzisor zumaiaarrak, orain dela urte batzuk, kirol oinetakoak jantzi arazi zizkion arte erakusketa kolektibo bateko zaindariari

Tracey Emin ingelesaren *My bed*, 100 milioi liberatan saldutako lana. Eskumako orrialdeko argazkian, Guillermo Vargas Habacuc-ek galeria batean gosez hiltzen utzi zuen txakurra. Aurreko orrialdean berriz, Marcel Duchampek erakusketa batean jarritako gernutokia. Azken hamarkadetan hain ohikoa den muga haustearen aitzindaritzat jotzen da Duchamp.

Donostiako Koldo Mitxelena aretoan. Erakusketak irauten zuen bitartean, zaindariak etengabe jantzita izan behar zituen oinetakook, eta huraxe izan zen Mantzisorren artelana. Beste batean, artelanen fisikotasuna zalantzan jarri nahirik, aretoan zabaltzen zen olio erre usaina izan zen Mantzisorrek aurkeztutako obra. Ezin ukitu ezin ikusi, usaindu besterik ez.

“Hori artea den? Bai. Zer den artea eta zer ez definitzeak, muga jartzeak, ez du zentzurik. Nik *Usaiarena* artelan izateko asmoz egin nuen, arte lehiaketa batera aurkeztu nuen eta epaimahaiak hautatu egin zuen”, azaldu digu Mantzisorrek. “Arte testuinguru batean egiten baduzu zerbait, nahiz eta iraupen laburra izan, nahiz eta ideia bat besterik ez izan, hori artea da”.

Arte testuinguru kontzeptua agertu zaigu, honenbestez, Mantzisorren ahotik. Ez da

ideia hori aipatu digun bakarra, beste hitz batzuekin bada ere. Michel Mejutok, ildo horretan, Santiago Sierra espainiarraren ekin-tza batetaz egin digu: “Sierra hautatua izan zen Espainia ordezkatzeko Veneziako Biurtekoan. Zegokion aretoa hutsik utzi zuen, eta hara zihoazenei nortasun agiria eskatzen zien, bestela debekatu egiten zien sartzea. Modu horretan, pertsonak askatasunez zirkulatzeari jartzen zaizkion mugak salatu nahi zituen”. Ekintza hori salaketarako tresna egokia den ala ez epaitu

gabe, Mejutok ez du zalantzarik Sierraren areto hutsa artelana zela, eta arte testuingurua da, hain zuzen, hori ahalbidetzen duena: “Arte komisario batek aukeratutako lana da, arte erakusketa batean jarritakoa, eta egilea artista da”. Horrela azalduta, argi dago arteak ez duela mugarik, arte testuinguruak jartzen dizkionak ez badira. Bere burua elikatzen duen sistema?

Etikaren mugak gainditzen

Euskarriak, materialak, kontzeptuak... ia infinituak izan daitezke, orain arte ikusitakoaren arabera. “Arte testuinguruak” onartzen duen oro artelana da, eta itxuraz behintzat, publiko zabala, munduko hiritar gehienen multzoa alegia, hortik kanpo gelditzen da eta bost axola dio gainera, ez bada gela huts bat jartzearen

truke milaka dolarretako sariak emateak batzuegan sortaraz dezakeen amorrugatik.

Zeresan gehiago ematen dute, zalantzarik gabe, muga plastikoak urratu nahian muga etikoak gaintzen dituzten artelanek. Azken urteetan adibide ugari topa dezakegu, eta denek izan dute oihartzun handia komunikabideetan. Hipokrisia ere badago horren atzean, Ismael Manterolak salatzen duenez: “Kontua da hedabideetan artea zerbait harrigarria bailitzan agertzen dela, normala ez balitz bezala, eta gauza normala da nire ustez”.

Eztabaida gehien sortu duen artelanetako bat –eta bai, artelana da, arte testuinguruak hala ezarria baitu– Guillermo Vargas *Habacuc* costarricarraren txakur ospetsua da. Haren akzioa egiteko erraza zen, ez hain erraza ulertzeko: txakur bat lotu zuen Nikaraguako arteareto batean, eta hantxe gosez hiltzen utzi. Giza hipokrisia salatu nahi zuen Habacucek –besteak beste, inork ez zuen txakurra askatzeko keinurik ere egin–, baina berak jaso du salaketa gehien.

Arte munduan dabilentzat ere era horretako ekintzak –adibide gehiago daude, bazterreko joerez ari bagara ere– onartezinak dira. Artearen muga etikoak bizitzarenak dira, ez gehiago eta ez gutxiago. Hala eta guzti, Ismael Manterolak galdera bota du: “Zergatik

Artelan polemikoak

Probokazioa, salaketa... Zein da helburua? Michel Mujetoren ustez, ikuslea harrizko xedea suma daiteke artista batzuen lanetan. Kasu batzuetan –gutxitan– etikaren mugak gaintzen dira, gehienetan gustu txarreko proposamenak baino ez dira, Mejutoren ustez. Gustu txarra negozio ona izan daiteke ordea: 1999an Tracey Emin ingelesak *My bed* obra aurkeztu zuen. Ohe desegina, kondoiak, janari hondakinak... 100 milioi liberatan saldu zuten. Urtebete lehenago, Chris Ofillik elefante-kaka erabili zuen bere margolanak egiteko. Turner saria eman zioten, bestela ere artelan “zailekin” lotura estua duen saria: formoletan gordetako animalia zatiak, lanpara bat baino ez duen gela hutsa... Egia da, arteak ez du mugarik.



bizitzan arruntak diren gauzak eskandalagarri bihurtzen dira artista batek egiten dituztean?” Milaka txakur eta pertsona hiltzen dira egunero gosez, baina agian horren salaketa baino errazago aurkitzen dira Interneten Habacucen kontrako irainak.

Nolanahi, badirudi artista izateak halako inpunitatea ematen duela. Chris Burden estatu-batuarrak, 1970eko hamarkadan, aireportu batean paratu eta abioiei tiro egiten zien. Artelana zenez, justiziari izkin egitea lortu zuen. ■

Olaberriako zirkuitua

Gida eskola Karting-a

Gainera auzoa, Z/G
20212 Olaberria
☎ 943 16 08 62
www.vilarinomotor.com
info@vilarinomotor.com